

Lankidetzaren hitzarmena sinatu dute Alboan Fundazioak eta Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak

2017/05/24

M^a Mar Magallón Alboan Fundazioako zuzendariak eta Bego Pedrosa Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanok lankidetzaren hitzarmena sinatu dute. Lankidetzaren helburua da proiektuak sortzea sustatzeko ekonomia soziala eta solidarioa Latinamerikako zortzi herrialdeetan, hala nola Bolivia, Kolombia, Ekuador, El Salvador, Mexiko, Nikaragua, Paraguai eta Perun. Hitzartutakoaren ardatza da eskaintzea formazioa, laguntza teknikoa eta jarraipena ekonomia soziala sustatzea helburu duten hainbat proiektuei. Bi urteko iraupena izango du egitasmoak: 2016ko abenduan hasi eta 2018ko abenduan bukatu. Sinadura ekitaldia egin zen pasas den astelehenean, hilaren 22an, Eskoriatzako campusean.

Sinatutako hitzarmenak jasotzen ditu gainera, abian jarriko diren ekintza zehatzak sustatzeko generoen arteko berdintasuna eta prozesu guztiaren sistematizazioa eta sozializazioa.

Formazio proiektu honetan parte hartuko duten 16 erakundeetako ordezkariak etorriko dira Comunidad de Aprendizaje y Acción para el Desarrollo Alternativo-Comparte elkartetik. Comparte elkargunearen helburuak dira, batetik, Iparra-Hegoa eta Hegoa-Iparra esperientziak partekatzea eta, bestetik, bultzatzea ekoizpen jasangarria eta sustatzea proiektu ekonomiko alternatiboak eta inklusiboak.

Alboan Gobernu Kanpoko Erakundeak eta Lanki Kooperatibagintza Ikertegiak kudeatuko dituzte proiektuak.



M^a Mar Magallón (Alboan Fundazioa), Begoña Pedrosa (MU) eta Oscar Rodríguez (Comparte sarea).